

# 2009ko urte guztiko errendapena

ZUBIMENDI, Joxe Ramon  
JAGONETen arduraduna

Hona, labur-labur, JAGONETeko 2009ko datuak, urte guztikoak:

1. Galdelekuan jasotako galderak: 978 (iaz baino % 2 gehiago)\*
2. Banan-banan emandako erantzunak: 968 (iaz baino % 2 gehiago)\*
3. Datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 542
4. JAGONETen bistaratutako web-orriak: 167.480 (iaz baino % 12 gehiago)

\* **Oharra:** 2008az geroztik, EUSKALTELeK bere aldetik ezarritako SPAM postaren aurkako iragazki automatikoak zaborretara bota ditu galdera asko [Gertakaria: 4106]. Horren ondorioz, esate baterako, 2009ko ekainean, gure informatikariak Word dokumentu batean (439 orrialde beteko dokumentua) bidali zizkidan 2009ko apirilean eta maiatzean JAGONET galdelekura bidean «galdutako» galderak eta mezuak. Dokumentu horretatik ezabatu nituen SPAM mezuak (zaborra) eta, banan-banan zehazki aztertu ondoren, honako hauek ere ezabatu nituen: batetik, errepikatutako galderak; bestetik, lehendik erantzundako galderak (dirudienez, erantzunik ez zutela jasotzen ikusirik, zenbait bezerok behin baino gehiagotan bidali zidaten galdera bera, eta halakoren batzuk bai iritsi, eta nik erantzun). Azkenean, 58 galdera atera ziren garbian, eta banaka-banaka erantzun nituen. Baita horien ondoren etorri zirenak ere. Geroztik, ordea, badirudi arazoa konpondu dela, zorionez, 2009ko urte bukaera aldera.

**JAGONET: datu-baseko 2009ko datuak, hilez hil**

JAGONETen	urt.	ots.	mar.	api.	mai.	eka.
Bistaratutako	13.585	14.895	14.244	10.706	14.202	10.511
	uzt.	abu.	ira.	urr.	aza.	abe.
web-orriak	6.622	4.178	11.456	31.256	24.426	11.483